



MIKROFONOARI HITZ EGINEZ

BRIEF SUMMARY OF ACTIVITY

Albisteak erredaktatzeko eta irakurtzeko prestatuko ditu partaideak.

AIM OF THE ACTIVITY

Irrati-albiste arduratsu, interesgarri, dinamiko eta informatzaile bat idazteko gai izatea. Albisteak aurkezteko gai izatea.

EXPECTED OUTCOMES

Jarduera burutzerako, honakoak jakingo dituzte partaideek: Informazioa nola bildu. Informazio-iturriak nola topatu. Material eta iturrien ebaluazioa. Garrantziaren arabera albisteak aukeratzeko eta multzokatzeko irizpideak. Albisteak ebaluatzeko gaitasuna publikoarentzat daukaten interesaren arabera. Idatziriko berriak nola irakurri mikrofono bat erabiliz. Albiste-elementuen garrantzia aldakorra egunean zehar.

INFORMATIONS FOR TRAINERS

EXPERIENCE AND SKILLS REQUIRED

Aholkulari jarduteko eta berriak emateko trebezia.

INFRASTRUCTURE, SETTING, RESOURCES

Mikrofonoa, entzungailuak, grabatzeko tresneria, internetera sarbidea, eta berri-agentzietara ere ahal bada.

LENGTH

Egun oso bat.

MATERIALS

DESCRIPTION

HOW THE ACTIVITY SHOULD TAKE PLACE

Testu-idatziak irakurriz: hezitzaileak lehendabiziko esaldia isiltasunean irakurriko du. Ostean, partaide bati irakurriko dio ozenki. Gero, bigarrena isilik irakurriko du, eta ozenki gero partaide bati zuzenduz. Hurrengo ere isilik irakurriko du, baina aurrekoa esaten bukatu baino lehen. Helburua ikasleei hurrengo esaldia nola

irakurtzen den aurrekoa oraindik ahoskatzen ari zaren bitartean erakustea da. Hau eta gero, formatzaileak binaka jarriko ditu ikaskideak, praktikatu dezaten. Hurrengo jarduera ezin hobea da 12 partaiderekin egiteko. Ordubetean minutu bateko iraupena duen albistegi bat prestatu beharko dute. Lehen kideak mikroa hartuko du. Minutu bat izango du albisteen berri emateko. Bukatu bezain pronto, hezitzaileak feedbacka eskainiko dio, lau minutu izango dituelarik, bost minuturen ostean hurrengo kidea hasiko baita. 12 kideetako bakoitzak bost aldiz errepikatu behar luke jarduera. Prozesu guztiak 6 orduz iraungo du gutxienez. Azken ekinalditik ordubetera errepikatuko dute jarduera norbanakoek. Ordubeteko tarte horretan zehar perfektzionatu egingo dute beraien lana. Ariketa hau egiteko lekurik hoberena estudioa da, soinu teknikari baten laguntzaz, ikaskideek bukatu bezain pronto egindako lana aditzeko aukera izan dezaten. bakoitzak.

RECOMMENDED MAX. NUMBER OF PARTICIPANTS AND TRAINEES TO TRAINERS RATIO

RISK AND POSSIBLE ADAPTATION

VARIATIONS

TIPS FOR TRAINERS

Hezitzaileak soinu-teknikari baten laguntza jaso beharko luke, ahal bada. Bi hezitzaileekin ere egin daiteke, lanaren banaketa argia bada. Ahotsari eta irakurketari loturiko ariketak eranskinean sartuak daude. Ikasle batek hizketarako ezintasuna badu, bakarkako trebakuntza eskainiko zaio.

PARTICIPANTS

ANALYSIS AND EVALUATION

Jardueran zehar ematen da.

SCHEDULING

Erredakzioa, ikerketaren ostean.